



ALKIZAKO UDALA

UDALBATZARRAK 2023ko URRIAREN 31AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2023ko urriaren 31an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA :	Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK :	Jose M ^a Aranzabe Urruzola Nagore Arizeta Garmendia Unai Sorarrain Urruzola Gillermo Otegi Zubillaga Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen du: Ana Agesta Echecolonea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - ✓ **2023ko irailaren 26an egindako ohiko bilkuraren akta.**
 - ✓ **2023ko urriaren 10ean egindako ez ohiko bilkuraren akta.**
 - ✓ **2023ko urriaren 24an egindako ez ohiko bilkuraren akta**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Eudelek igorritako zirkularra onartzea, % 0,5 eko ordainsari-igoera gehigarriari buruzkoa 2023.01.01 ko ondorioekin.**
- 5. Tolosaldea Garatzen S.A. elkarteari, Andragora Tolosaldeko emakumeen etxeko programak eta zerbitzuak dinamizatu, diseinatu, egin eta garatzeko, zerbitzuen kontratazioa egikaritzeko enkargua dela eta, 2023 urteari dagokion ordainketa burutzea.**
- 6. Asteklima, klima aldaketaren aurkako borroka sustatzeko astearen 2023ko edizioan jarduerak antolatzeko xedearekin, FOOD HACK LAB ELKARTEA-ren eta Alkizako udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren onspena.**
- 7. Alkizako herritarrei Euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzaren oinarrien onspena, hala bada.**
- 8. Beste batzuk**



ALKIZAKO UDALA

9. Mozioak, erreguak eta galderak.

9.1. UEMA-ko adierazpena, Euskal Autonomia erkidegoko auzitegi nagusiaren 435/2023 epaiaren aurrean.

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENAK

- 2023ko irailaren 26ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.
- 2023ko urriaren 10eko ez ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek Inaki Irazabalbeitia alkatearen abstentziorekin, bilkura horretan ez zelako izan, gehiengoz onesten dute.
- 2023ko urriaren 24ko ez ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 71/2023tik 80/2023 arteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

AMETS ARZALLUS	298,26
GARRA, S.L.	169,40
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA	10.778,44
IZFE	38,66
TOLOMENDI	175,82
NEREA IBARZABAL	298,26
TOLOSAKO JABETZA ERREGISTROA	161,20
MERKAOIL	1.220,89



ALKIZAKO UDALA

ARGITU ASESORES	323,63
OIHANA IGUARAN	298,26
EGIMENDI TRESNAK	51,85
EGIMENDI TRESNAK	157,22
SOLRED	137,62
ANDONI EGAÑA	298,26
MAQUELSA	8,87
I-SAI ACCESOS Y PRESENCIA	1.144,54
CALPARSORO INDUSTRIAL	99,83
OSCAR GALINDO BARROSO	133,10
ZU ETA BIOK	605,00
ORANGE	35,27
KEY LAN	5,01
GUREAK MARKETING	238,10
IZFE	2.089,54
AKETEGI	37,38
AGURTZANE ELUSTONDO	330,00
ION ELUSTONDO	330,00
ARRATE IRRATIA	145,20
OTIS	504,32
URBIETA TRANSPORTES	387,20
IZADI LABORATEGIA	165,78
DEKOARBERAS	313,52
GRENKE RENT	214,17
GOIENER	21,45
GOINER	293,70
GOINER	9,49
GOINER	25,91
GOINER	808,80
GOINER	5,52
GOINER	24,42
GOINER	178,63
GOINER	12,62
GOINER	25,05
GOINER	3,85
GOINER	24,13
GOINER	16,53
GOINER	104,41



ALKIZAKO UDALA

GOINER	11,43
GOINER	68,52
NAGORE ERRAZKIN	314,60
EBA ERKIZIA	1.815,00
QUISER	550,94
VECS INGENIERIA, SERVICIOS.....	199,65
BERRI LANTEGIA	32,85
LARUN	43.814,10
EUSKAL HOTZ	12.420,65

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **81.977,27** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

EUDELEK IGORRITAKO ZIRKULARRA ONARTZEA, % 0,5EKO ORDAINSARI-IGOERA GEHIGARRIARI BURUZKOA 2023.01.01 ONDORIOEKIN

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendioa, non ondorengoa dioen:

“ZIRKULARRA, % 0,5eko ORDAINSARI-IGOERA GEHIGARRIARI BURUZKOA, 2023.01.01eko ONDORIOEKIN

2023ko ekitaldirako ordainsarien igoerei buruz EUDELEk urtarrilaren 18an eta irailaren 22an bidalitako zirkularren jarraipen gisa, honako hau jakinarazten dizuegu:

Joan den irailaren 28an, Estatistikako Institutu Nazionalak Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren 2023ko iraileko datu aurreratua argitaratu zuen, %3,2koa. Datu horri 2022ko ekitaldiko urteko KPI harmonizatua gehituta, %5,5koa, % 6tik gorako batura ateratzen da, eta baldintza hori Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19. BI artikuluan jasotzen da, ordainsarien % 0,5eko gehieneko igoera gehigarria egiteko, 2023-01-01eko ondorioekin. Ildo horretan, eta legeak berak jasotzen duen bezala, Ministro Kontseiluak, 2023ko urriaren 3an egindako bilkuran, gehikuntza hori aplikatzea erabaki du (2023.10. 5 BOE).

Aurrekoa ikusita, EUDELEk aurreko ekitaldietako udaletako langileen ordainsarien igoerei dagokienez egin izan duen bezala, eta 31/2022 Legeak



ALKIZAKO UDALA

ordainsarien arloan izan ditzakeen interpretazioak argitze aldera, egokitzen jotzen da euskal udalei honako **GOMENDIO** hau egitea:

1. 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi 2.a) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko gehikuntza gehigarria onartzea.

Igoera hori aplikatuko zaie 2022ko abenduaren 31ra arte indarrean dauden ordainsariei eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

2. Aipatutako 31/2022 Legearen 19. BI 2 b) artikuluan xedatutakoari dagokionez, 2023an Barne Produktu Gordinaren (BPG) bilakaerarekin lotutako %0,5eko beste igoera gehigarri bat egiteko aukera aurreikusten da. Baina Ministro Kontseiluaren erabaki bidez horri buruz xedatzen dena beteko da, dagokion unean, eta EUDELeK horren guztiaren berri emango dizue, unean-unean.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- Eudelek igorritako zirkularra bere osotasunean onestea eta aplikatzea, %0,5eko ordainsari-igoera gehigarriari buruzkoa, 2023.01.01 eko ondorioekin.

BOSTGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZEN S.A. ELKARTEARI, ANDRAGORA TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEKO PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK DINAMINAZATU, DISEINATU EGIN ETA GARATZEKO, ZERBITZUEN KONTRATAZIOA EGIKARITZEKO ENKARGUA DELA ETA, 2023 URTEARI DAGOKION ORDAINKETA BURUTZEA

Ikusita Alkizako udalak, 2023ko maiatzaren 4an Tolosaldea Garatzen S.A. Elkarteari, Andragora Tolosaldeako emakumeen etxeke programak eta zerbitzuak dinamizatu, diseinatu, egin eta garatzeko, zerbitzuen kontratazioa egikaritzeko enkargua eman ziola.

Ikusirik, enkarguan zehazten zela 2023 urteari zegokion ekarpena 587,95 euro zirela.

Ikusirik Alkizako aurrekontuetako 481.337.10.06 partidari badagoela aipaturiko ekarpena egiteko adina diru.



ALKIZAKO UDALA

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Tolosaldea Garatzen 587,95 eurotako ekarpena onestu eta burutzea, udal aurrekontuetako 481.337.10.06 kontu sailaren kontura, Andragora Tolosaldeako emakumeen etxeko programak eta zerbitzuak dinamizatu, diseinatu, egin eta garatzeko, zerbitzuen kontratazioa egikaritzeko kontzeptupean.

SEIGARREN PUNTUA

ASTEKLIMA, KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO BORROKA SUSTATZEKO ASTEAREN 2023KO EDIZIOAN JARDUERAK ANTOLATZEKO XEDEAREKIN, FOOD HACK LAB ELKARTEA-ren ETA ALKIZAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZE HITZARMENAREN ONESPENA

Ikusita Alkizako udalak interesa agertu duela ASTEKLIMA, Klima aldaketaren aurkako borroka sustatzeko astearen 2023 edizioan hainbat jarduera antolatzea.

Ikusirik, aipaturiko jarduerak antolatzeko FOOD HACK LAB ELKARTEA, lan horietan ibiltzen dela.

Ikusirik, Asteklima, klima aldaketaren aurkako borroka sustatzeko astearen 2023ko edizioan jarduerak antolatzeko xedearekin, Food Hack Lab Elkartearen eta Alkizako udalaren arteko lankidetzaren hitzarmen bat prestatu dela.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Asteklima, klima aldaketaren aurkako borroka sustatzeko astearen 2023ko edizioan jarduerak antolatzeko xedearekin, Food Hack Lab Elkartearen eta Alkizako udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena onestea.

BIGARRENA: Aipaturiko hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea Maider Aldazabal Mateo udal langileari.



ALKIZAKO UDALA

ZAZPIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAREN OINARRIEN ONESPENA, HALA BADA

Alkate-Lehendakari jaunak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andreak 2023-2024 ikasturterako Alkizako biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- 2023-2024 ikasturterako Alkizako biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

8.1.PERUALDA 1 EAN IZANDAKO UR MATXURAREN ONDORIOZ JABETZA KOMUNITATEARI EGIN BEHARREKO EKARPENAK

Ikusirik Perubidea 1eraikinean ur matxura bat izan dela, hau konpondu da eta konponketa ondoren erreguladore bat jarri behar izan da, bertara iristen zen ur presioa oso handia zelako.

Ikusirik, Alkizako udalak Perubidea 1eraikinean bi lokal dituela, eta matxura eraikin guztiari eragiten diola, bertako administratzaileak Alkizako udalari egin beharreko ekarpenak igorri dizkio.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Perubidea 1 eraikineko jabetza komunitateari 371,41 eurotako ekarpena burutzea, bertan izandako ur matxura konpontzeagatik.

BOSTGARRENA.- Perubidea 1 eraikineko jabetza komunitateari 194,93



ALKIZAKO UDALA

eurotako ekarpena burutzea, bertan izandako ur matxura konpondu ondoren eta ur presioa oso handia denez, erreguladore bat jartzeagatik.

HIRUGARRENA: 371,41euro eta 194,93 eurotako gastuak onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, udal aurrekontuetako 211.920.00.01 kontu sailaren kargura.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK**

9.1. UEMA-KO ADIERAZPENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAREN 435/2023 EPAIAREN AURREAN

Ikusita UEMAK aurkeztutako adierazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 435/2023 epaiaren aurrean, non ondorengo dioen:

“Gaur jakin dugu EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak baliogabetu egin dituela Eusko Jaurlaritzaren 179/2019 Dekretuaren hainbat artikulua. Udal Legea garatzen du dekretuak, eta hizkuntza ofizialen erabilera arautzen du. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak uztailean Udal Legeari buruz emandako epaiaren ostean, Dekretuaren aurka egin du Auzitegi Nagusiak. Epai hauek euskararen ofizialtasuna bera ere zalantzan jartzen dute, askotan Udal Legeak arautzen ez dituenak ere aurreikusiz, modu prebentiboan.

Eusko Legebiltzarrak kontsentsu zabalarekin onartu zuen epaitegiek baliogabetunahi duten Udal Legea, eta azken Inkesta Soziolinguistikoak ere argi erakutsi du gizartearen gehiengo zabal batek babesten dituela euskararen normalizazioa helburu duten politikak. Beraz, epai hauek euskararen biziberritzearen aurkakoak ez ezik adostasun sozial handi baten kontrakoak ere badira. Azken batean, herritarren eta udalen erabakimena jartzen dute auzitan.

Horren aurrean, honako adierazpen hauek egin nahi ditu Udalak:



ALKIZAKO UDALA

1. *Kezkaz eta larritasunez hartu dugu euskararen indarberritze-prozesuaren aurkako epai hau. Testuingurua ere kontuan hartu behar da: azkenaldian gisa bereko epai batzuk iritsi dira, eta guztietan berbera izan da norabidea. Epai hauek traba dira urteotan euskara sustatzeko bidean adostasun handiz eraiki den orubearentzat.*

2. *EAEko Auzitegi Nagusiaren epaiak bete-betean eragiten die UEMAK eta bertako kide diren udalek urte askoan jorratutako lan-ildoak: hizkuntza-plangintzari eta kontratazioari, adibidez. Udalak helburu nagusien artean du udalerrian euskara normalizatzea eta herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzea, eta sententzia honek oztopoa besterik ez dakar. Hori jarri baitu ezbaian auzitegiak: euskararen normalizazioa. Euskara lehenestearen aurka egin du, gaztelania baztertzea delakoan. Ez da halakorik: minorizatutako hizkuntza aurrerabidera eramatea da, eskubide guztiak bermatzeko.*

3. *Sententzia horiek bereziki eragiten diete udalerrri euskaldunei, horietan ari baitira hartzen euskaraz funtzionatzeko neurri gehien. Hori oztopo bikoitza da euskararen indarberritze-prozesuarentzat: batetik, galga jartzen diete euskara normalizatzekeo neurri aurreratuenei, eta normalizazio-prozesuak badauka horren premia; bestetik, euskarak indar handiena duen lurralde-eremuei eragiten diete, eta gune horien premia gorria du euskarak. Udalerrri euskaldunek ezinbestekoa dute lege-babesa.*

4. *Udalerrri euskaldunetan, hainbat arlotan aurrera egin du euskarak hamarkada hauetan, baina oraindik bada zertan eragin. Udalean bertan ere urrats handiak egin ditu euskarak, eta gaur egun, zerbitzu-hizkuntza ez ezik, lan-hizkuntza nagusia ere bada euskara. Horretan jarraitzeko asmo sendoa du Udalak, eta aurrerantzean ere martxan jarriko ditu bere esku dauden neurri eta plangintza guztiak. Euskara da gure udalerriko hizkuntza*



ALKIZAKO UDALA

propioa, eta hori sustatzen jarraitzeko konpromisoa dauka Udalak. Justiziazkoa da.

5. Udalak, asmo hori garatu ahal izateko, ezinbestekoa du lege-orube sendoa. Hortaz, Udalak dei hau egin nahi die lege-araudia garatzeko eskumena duten gainerako erakunde guztiei: nork ere eskumenekin eta elkarlana oinarritzat hartuta, urra dezagun bidea euskararen indarberritze-prozesua lege-babes sendoarekin hornitzeko.

6. UEMAK bat egin du Euskalgintzaren Kontseiluak azaroaren 4an Bilbon antolatutako manifestazioarekin, eta epai honek beste arrazoi bat jarri du kalera ateratzeko: euskararen aurkako oldarraldia eten egin behar da. Horregatik, UEMAKo kide den heinean, euskararekin bat egiteko eta Bilboko mobilizazioan parte hartzeko deia egiten die Udalak herritarrei."

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 435/2023 epaiaren aurrean UEMAK aurkeztutako adierazpena bere osotasunean onestea.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20:15 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

